

- **Entzutekuak:** Afari begetarianoak edozeinendako Gaztetean.
- **Zer berri:** Maisuen Etxeen oinarriak mahai gainean laga dituzte.

soraluzeko
hamabostekaria **242.** alea
2011ko maiatzaren 6an

Argazkia: Hiar Arluziaga

🌀 pil-pilean



KORRIKA 17
Maitatu, ikasi, ari...
euskalakari!



Publiaren diseinua Pil-pilean. diseinua@pilpilean.com

*Aukera polita!
Baserría salgai
Soralarzen*

**250 m² eraberrituta, 125 m² ko
bi etxebizitza egiteko aukera.*

**Guztira 150 m² teulatuplean.*

**Teilatu guztiz berritua.*

679 155 980 (Mari Jose)



MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA
Bergara

ATE IREKIAK

Zatoz MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA ezagutzera.
Maiatzaren 21ean, goizeko 11etan, zabalik izango duzu.

AURREMATRIKULA

Ekainaren 1etik 10era

MATRIKULA

Uztailaren 4tik 8ra

IEFPS MIGUEL ALTUNA GLHBI

Ibargarai 1, 20570 BERGARA
Tel.: 943 76 38 40 / 943 76 24 91
imaltuna@sarenet.es • www.imaltuna.com



IRATI TREBIÑO



IÑIGO URIBETXEBERRIA

NATURALAK, EZTA YUGURRAK BE

Kaixo guapo! Lelengo berben zailtasuna gaindittuta abixadia hartzia tokatzen jaku oinguan. Oin gutxi lagun batek kontatutako anekdotatxua darabilt azkenaldixan buruan eta horrekin zabalduko dittut gaurkuan atari honetako atiak.

Nerabiekin lan egitten dau lagunak eta talde batek neskok orokorrian letra hobia daukagula ondorioztatu ei zeban, bada-kizu, txukunaguak garala... finaguak nolabait esatiarren. Horren zegaitiaz gal-detuta, naturala dala izan zan erantzuna. "Naturala" aizu! Horrekin naturak hala inposatutako legia dala ulertu biharko genduke? Tira, tira, gaur egun "natural" deittu al dittugun gauza bakarra yogur-rrak dira eta! Eta honek be azukrez gozatuak etortzen jakuz gehixenetan!

Irakurle askori be "naturala" begittan-duko jako nerabien erantzuna, eta nik be ez notsake buelta gehixago emongo azpitan bortizkerixarik latzena gordetzen daben icebergaren punta dala jakingo ez baneu. Bai Iñigo, holako ondorixo "naturalak" dira gizon-emakume binomio bateraezin eta kontrajarrixa elikatzen dabenak. Zu horrelakua zara eta ni honelakua izan biharko nintzake. Eta ni umetan arroxaz jantzi nindutenez, ba parterik txarrena tokatu jata.

Ezetz esango dotsagu emakumien aurkako indarkerixiari, harro jarriko dittugu boro-biltxo moriak gure leiho eta eskaparatie-tan... eta ondo dago. Baina gure eguneroko ekintza "natural" horrerik kasu egitten ez badotsegu jai daukagu! Nundik hasi geinkian? Argi dago. Naturala ez bada ikasittakua da, eta ikasi doguna desikasi geinke, ezer ahazteko biharrik bare, amnesiak ez dotsa eta inori onik egitten.

Ze Iñigo, animatzen zara?

Goguan hartzeko

Fruiturik izanen duen zuhaitzak, aitzinetik behar du loratu.
Gotzon Garate, euskal atsotitza

Itepe politta... aiiiiiiiiiiii azken momentuan idazte lhonek ezin du ona izan. Baina tira, buruan dabil-kidan erantzuna ea hitz multzo egokietan osatzeko gai naizen.

Neuri ere esan izan didate letra politta daukadala, nesken estilokoa omen... adjektibo politta dela esan-

go nuke, zeuk esan bezala icebergaren punta besterik izan ez balitz. Eta neuk ere naturala eta normala dela esango nuke zure idatzia irakurri arte.

Normala dela esan dezakegu, gure heziketak hain tradizionala izaten jarraitzen baitu.

Biok izan gara pasa den urtean guraso, eta biok pairatu izan ditugu koloreen zatiketak, urdin eta arrosa. Arraza desberdinak sortu behar bagenitu bezala. Olioia eta ura, zakurra eta katua. Baina gure neska-mutilek urteetan aurrera egin ahala ez du beherantz egiten heziketa zatitzaile horrek.

Mutilok betiko kultura matxitoa segi behar dugu, eta neskok zeuenean jarraitu. Autoak eta loreak ondo bereizten segi. Bestela normalidadetik at geratzeko arriskua dago, badakizue, *marikoe pute bat* edo *tortillera zikin* baten etiketa laster jarriko digute, diete, diegu.

Normak errespetatzera kondenatuta gare. Normak, normalak izateko.

Gure gizartean emakumeen kontrako bortizkeria normala bihurtu da, hain normala, pixkat gehiago eta egurtutako

emakumerik ez egotea izango litzateke notizia. Eta gainera lehen notizia, ez orain bezala betelanak egiten dituen notizia hori, emakume kottaua esan eta pasa gaitezen kiroletara.

Mundu hankaz gora.

“Naturala ez bada ikasittakua da, eta ikasi doguna desikasi geinke, ezer ahazteko biharrik barik”

Irati Trebiño

“Badakizue, marikoe pute bat edo tortillera zikin baten etiketa laster jarriko digute, diete, diegu.”

Iñigo Uribetxeberría



GUTUNAK

2011ko
aurrekontua

2010ko aurrekontuaren bozketan Soralezeko EAJ/PNV udal taldea abstenitu egin da. Ikusi denez gure taldearen abstentzioari esker udal aurrekontua onartu egin da. Aurreko urtean bezala, erantzunkizunez jokatu baitugu.

Lehenik eta behin adierazi nahi dugu 2010ko aurrekontuaren memorian aipatzen dena "La situación económica de este Ayuntamiento es muy preocupante, ya que los ingresos corrientes superan únicamente en 7.158€ los gastos corrientes. Lo cual significa que la capacidad de endeudamiento es nula."

Ikus daitekeenez egoera ekonomikoa oso larria da. Aurreko urteko memorian egoera delikatua zela adierazten zen. Gaur egungoan aldiz oso larria. Benetan larriki kezkatzen gaituen gaia da hau. Aurrekontua aurreko urtekoarekin alderatuz 400.000 eurotan murriztu da. Hainbat batzordek %24ko beherapena izan dute. Gastu arrunta aldiz %9an murriztu da.

Bestalde aurrekontuaren zirriborroa aztertu genuenean gauza batek harritu gintuen. Ez zen euro bakar bat ere isladatzen haurtzaindegiaren beharrei aurre egiteko. Ondorioz gure taldeak zuzenketa bat aurkeztu zuen. 26.000 euroko partida bat zehaztea udal aurrekontuetan haurtzaindegiko beharrei aurre egiteko.

Udal gobernuak guk aurkezturiko emendakina neurri batean onartu du, konkretuki 16.000 euroko partida aurreikusi du aurrekontuetan.

Ondorioz esan dezakegu aurrekontuaren aurrean abstenitu garena bi arrazoi medio: Alde batetik, udal kontuen egoera "oso kezagarria" delako. Egoerak ez du hobera egin aurreko urtearekin alderatuz. Bestetik, gure taldeak eginiko zuzenketa neurri batean (16.000 eurotan) onartua izan delako.

Informazio gehiago www.soraluzepnv.com

Soraluzeko EAJ/PNV udal taldea

Milesker PNV

Azken lau urteetan Soralezeko PNVk herritarroigurre onorioak ateratzeko eskatu digu behin baino gehiagotan, ba nik entzun eta ikusitakoekin nireak atera ditut. PNVren aldetik hitz politikak entzun ditut baina konpromisorik ez dut ikusi, hitz politikak bai baina itunak kontrako norabidean ikusi ditut. Bat egindute PPrekin eta PSE-EEekin AHTa, Pasaiaiko superportua eta Zubietako erraustegia bezalako proiektu suntsitzaileak aurrera ateratzeko. Bat egin dute PP eta PSOEekin langileen eta pentsiodunen eskubideak murrizteko. Soralezeko Udalean bat egin dute PP eta PSE-EEekin, euskal presoaren eskubideen alde eta torturaren aurka konpromiso zehatzak hartzeko aurkeztu diren mozioak aurrera ez ateratzeko. Horrelakoak iku-

si ostean orain berriro hitz politekin datoz, hau da, "Batu gaitezen" kanpaina elektorala bezalako iruzur handi batekin datoz. Zergatik Nafarroan ezin gara batu eta Gipuzkoan bai? Helburua, illegalizazioak jarraitzen badu Gipuzkoan ahalik eta bozka gehien batzea da! Ondorioz nire aukera ez da PP-PSE-EE-PNV koalizioa izango. Nire aukera, Gernikako Akordioa sinatu ostean presoaren eskubideen alde eta torturaren aurka konpromisoak hartuko dituzten alderdiana izango da. Nire aukera, jatorri ezberdineko abertzaleak bildu dituen koalizioa izango da. Hori bai, PNVren afaritako lagunek uzten badidate. Milesker PNV ondorioak ateratzen laguntzarren eta besarkada bana espetxe guztietara.

Iraultz Arluziaga

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Urribetxerria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarkeak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORALUZKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Aitor Morillo
Mamu bizia

Gaur mamu bati buruz hitz egingodizuet. Mamuhonek izen propioa du eta harrapatzen zaituenean izua hedatzen du, bai kaltetuarengan baita bere ingurukoengan ere. Mamu honen izena MINBIZIA da.

Jakingo duzuen bezala minbizi kasuak areagotu egin dira azken urteetan eta uste baino jende gehiagok bere egunerokoan gaixotasun honi aurre egin behar dio. Ez dut nahi gaixotasunari buruz hitz egin, denok ezagutzen dugu eta. Lerro hauek eguneroko borrokan diharduten guztiak (kaltetu eta bere senideak) gogoratzeko erabili nahi ditut. Beraien bizia berreskuratzeko, froga baten erantzunaren zain dauden guztiak. Gaixotasuna pairatu eta aurrera egin duten guztiak. Sendatu ez arren, eguneroko izu hori gainditu eta beraien irribarrerik onena oparitzen digutenak. Baina baita etsita daudenak edo heltzen ez den sendabide horren zain beraien atzera kontua hasi dutenak. Eta atzera kontua dagoneko agortu zutenak ere. Sendabidea heldu bitartean, aipatutako guztiei eta bereziki egoera okerreanean daudenei bidal diezaiegun animo pila, irribarrerik handiena eta munduko besarkada guztiak.

Afari begetarianoak herritar guztion gozagarri

Olaia eta Iratik, martxotik, afari begetarianoak prestatzen dihardute Gaztetxean, hileko lehen eta azken barixakuetan. Isun bat ordaintzeko beharrak aginduta, aspaldiko gogoia loratu eta herrian orain arte egon ez den eskaintza plazaratu berri dute.

Zegaittik egin dozue afari begetarianoen aldeko apostua?

Animali jatorriko produktu askok, atzetik, sufrimendu asko daukela badakigu eta kate horrekin apurtzeko aukeretakoa bat da beganismua. Atzian sufrimendurik ez dauken, osasuna emoten daben platerak prestatu eta eskaintza hau herrixari zabaldu nahi dotsagu, bide batez, jendian kuriositatea pizteko.

Elikadura eredu barrixak landu bihar dira orduan?

Elikadura bera da landu bihar doguna. Gaur egun "tradizional" moduan jaten doguna ez da gure arbasuek jaten zebena. Guk elikaduria zaintzen ikasi nahi dogu, antzinako eredutik eta eredu barritik aukerak jasuz.

Jaten doguna gara. Hala da?

Guztiz, bai! Guretzat baina, jaten doguna ez da bakarrik ahotik sartzen doguna, kanpotik jasotzen dogun dana da jaten doguna, orduan, jasotzen dogun danak egitten gaitu gu.

Zeuenak gertukuak eta freskuak?

Egunez egun sasoikuak, freskuak eta gertukuak diran produktuak kontsumitu bihar dirala uste dogu, baina badira besotelako balore batzuk kontutan

((ENTZUTEKUAK))



Olaia eta Irati gustora daude jasotako erantzunarekin.

hartzekuak be, Gaztetxeko afariak prezio herrikoa izan bihar dabela adibidez. Hau dana kontutan izanda sukaldatzen dogu.

Zegaittik dira produktu ekologikak hain garestiak?

Garesti zeinentzat, gure osasunantzatzat? Gizartiantzat? Diruz beste produktuak baino gehixago balixo dabe, baina ez dira garestixaguak.

Zeintzuk dira menuan eskaintzen dituduen aukera goxak?

Seitan brotxetak, krocketak, falafela, plater konbinatuak arroz integralakin eta berdurak tenpuran.

Gaztetxean zergatik?

Nun bestela?

Animatu herritarrak gaztetxian tripia betetzera!

Herritar danei afarixetara etortzeko gonbitia luzatu nahi dotsegu, ia jende barrixa gerturatzia lortzen dogun! Apurto buruko mugak eta gerturatu bai Gaztetxera eta baita afari begetak probatzera be!

"Elikadura bera da landu bihar doguna".

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa, eta berogailuak sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

HNOS. BENITO ANAIAK

Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

T. eta F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

Bizi osorako zigorraren aurka prentsaurrekoa

Peio Etxeberria euskal preso politiko plaentxiarraren egoera salatu eta bere askatasuna eskatzeko Soraluzeako AAM-k, senideek, udal ordezkariak eta lagunek prentsaurrekoa eskaini zuten apirilaren 8an. Peiori 30 urteko kartzela zigorra osorik betetzeko agindua ezarri izana salatu zuten, azken urteetan euskal preso politikoei ezarritako doktrina bereziaren ondorioz aplikatzen zaiena. 1989an espetxeratu zuten Etxebe-

ria. Auzitegi Goreneko 197/2006 sententziaren irizpidea aplikatuz, Peio Etxeberria 2019rarte ez askatzea erabaki zuen Espainiako Auzitegi Nazionalak. 2006ko irailaren 10ean askatu behar zuten Peio eta kaleratze data 2019ko apirilaren 8ra atzeratu diote, 30 urteko zigorra osorik bete arte.

Hurrengo deialdiak

Soraluzeko AAM-k ondorengo egunetan bat egiteko deialdiak egin zituen.

Bihar, maiatzak 6: Elurtxuriri ongietorria Arrasaten.

Maiatzak 28: Elkartasun Eguna Soraluzean.

Herriko beste preso eta iheslarien egoera zein den gogoratu zuten prentsaurrekoan, *“Eloi Uriarte 36 urte herritik kanpo eta epai-
ketaren zai dago eta Lurdes Txurrukak 16 urte daramatza kartzelan, orain Huelvako espetxean dago 1200 kmtara eta miaketen txantaiaren ondorioz otsailean ere vis a visa debekatu zioten”.*



Plaentxi ikastetxeko ziburuak apurtuta

Aste Santuko oporretatik bueltan ezustekoa hartu dute Plaentxi Ikastetxeko irakasle eta ikasleek. Ikastetxe osteko jolastokiko ziburu guztiak apurtuta aurkitu dituzte, lekuz mugituta edo su eman da. Irakasleak arduratuta daude gertatu denarekin eta irtenbide bat aurkitu behar dela diote, ez dadin errepikatu.



Memoria historikoa berreskuratzen

Zinea leporaino bete zen “75 urteko isiltasuna hausten” erakusketako aurkezpen ekitaldian. Erakusketak gaur itxiko ditu bere ateak eta Soraluze 1936 lan taldeko kideak oso pozik daude jasotako erantzunarekin. Antolatzaileek irailerako herri mailako ekitaldia prestatzen dihardute eta laster 22 testigantzaz osatutako DVDa kaleratzeko asmoa dute..



Musika Eskolako matrikulazio epea zabalik

Itziar Buruntza Eskolako zuzendariak jakinarazi du maiatzaren 16tik ekainaren 17ra izango dela matrikulazioa epea. Iazko instrumentu eta ikasgai berberak mantendu dituzte, haur, gazte eta nagusiei zuzenduta. Edozertarako deitu 943 75 15 44 zenbakira.

Haurreskolako izen-ematea zabalik

Soraluzeko Haurreskolak matrikulazio-epea zabaldu du 2011-2012 ikasturtean seme-alabak bertan eskolaratu nahi dituzten familientzako. Eskaerak egiteko epea maiatzaren 2tik 13ra artekoa da. Izenematea Haurreskolan bertan egin behar da (943 75 13 32).

Mesedeetako Amak bost plaza gehiago izango ditu

Foru Aldundiak Mesedeetako Ama egoitzan bost plaza gehiago edukitzea ahalbidetu du. Jon Barandiaran Egoitzako zuzendariak 43 adineko daudela azaldu du eta dagoeneko jende berria sartzen hasi dela, herritik eta bailararik datorrena.



Errepublikaren aldarria gogoratzen

II. Errepublikaren 80. urteurrena ospatu zen apirilaren 14an eta Soralezeko Udalak hiru koloretako bandera udaletxeko balkoian zintzilikatu zuen, ikurrinaren ondoan. Memoria Historikoaren Soralezeko 1936 Lan Taldearen eskariari erantzunez jarri zuen Udalak bandera, "askatasunaren aldeko sinbolo moduan".



Bizikaleko zozketa

Bizikale Merkatari Elkarteko errifen zozketa apirilaren 14an egin zen Plaza Barrian. Sarituak Arianne Rodriguez eta "Karpotes Kuadrila" izan dira eta 250 euroko saria jaso dute elkarteko dendetan gastatzeko.



Korrikako zenbaki saritua

Korrika Batzordeak banatutako errifen artean, 6316 zenbakia izan da saritua. Mikel Santiagok irabazi du jakiz betetako otar ederra. Zorionak euskalakarri!

1958an jaiotako bazkaria

Aurten 53 urte betetzen dituzten soralezetarrek bazkaria egingo dute maiatzaren 28an 14:30ean Txurruka jatetxean. Bertaratu nahi dutenek 48 euro sartu beharko dituzte ondorengo kontu korrontean: 21010062110012814067. (Kutxa)

Alokairurako etxeen oinarriak mahai gainean laga dituzte

Euaztenez legealdiko azken udalbatzarra egin zen saio aretoan. Gai esanguratsuenak Maisuen Etxeetan errentariak hautatu eta ontzat emateko Oinarriak bozkatzea izan zen. Alderdi sozialistak gaia mahai gainean lagatzeko eskatu zuen, zenbait punturen gaineko zalantzak medio. Udal Gobernu Taldeak onartzearen alde bozkatu zuen, mahai gainean lagatzearen alde egin zuten EAJ, PP eta PSE alderdiek. Ondorioz, bere horretan geratu da gaia, eta hurrengo legealdiko udalbatzarrean eztabaidatuko dute.

Ezoziko kirol instalazioen erabilpena onartu dute

Udalaren eta Soralezeko Futbol Taldearen arteko hitzarmena onartu zuten Udal Gobernu Taldearen eta EAJ-ren aldeko botuekin; PP eta PSE abstenitu egin ziren. Hitzarmenari esker, besteak beste, herritarrek bertako instalazioak erabili ahalko dituzte futbol taldeek bertan jokatzeko ez duten sasoiak. Azkenik, etxeko laguntza zerbitzuko erabilizaileen artean botikeren erabilera optimizatzen duen programa garatzeko, udalaren eta Gipuzkoako Botikarien Elkargoaren arteko lankidetzaren hitzarmena aho batez onartu zuten zinegotziak.



Maisuen etxeak ekainerako erabilgarri egotea aurreikusten da.

Udal hauteskundearen jarraipena

Paperean eta sarean, gertutik jarraituko ditugu maiatzeko hauteskundeak. Hautagaiak, zerrendak, alderdien proposamena... Gainera, hilaren 22an Soralezeko emaitzen zuzeneko jarraipena egingo dugu Plaentxia.com webgunean.

Plaentxia.com:

- Alderdien zerrendak
- Blogetara loturak
- Hautagaiei bideo-elkarrizketak
- Maiatzaren 22an hauteskundearen zuzeneko jarraipenak

Pil-Pilean, maiatzaren 20ko alean:

- Alderdien programa, asmo eta proiektuak
- Alkategaiei elkarrizketak

JUAN MARI
ARRAINDEGIA

943 75 24 40
MERKATU PLAZA

25. URTEURRENA

ESKERRIK ASKO PLAENTXIARTARREI
GUCAN IZANDAKO KONFIANTZAGATIKI

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13





Eskerririk asko Kontrargi Argazki Kolektiboari bere laguntza osoagatik.

ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Maiatzaren 22an udal eta foru hauteskundeak egingo dira eta soraluzetarrek datozen lau urteetan herria gidatuko duten ordezkariak aukeratuko dituzte. Azken lau urteotako legealdiaren inguruko iritzia jaso nahi izan dugu herritarrengandik.

Zein da zure iritzia legealdi honetako Udalaren jardunaz?

ELADIO VAQUERO
Jubilatua



Ez jata gustatu. Ez dot inziatibarik ikusi. Aurretik martxan zeren planak egin dittue, ezebez gehixago. Trafikuan gaineko neurrixak be hobeto pentsatu bihar dira eta gehixago aztertu.

ANDREA OLAIZOLA
Erizain laguntzailea



Norabide aldaketia de-sastre bat pentsatu jata, txapuzerua. Ezoziko zelaxan dirua gastatu izana ondo ikusi dot, peatonalizazina be primeran, umiak trankil-trankil ibiltzeko. Orokorrian ondo dago herrixa.

JOSE MARI SORALUZE
Langilia



Hobetu dexente egin leike. Peatonalizazina eta bestelako kudeaketa be hobetu leikez. Norabide aldaketiaz berriz gehixago espero neban. Adokinauan kontua be "eskoriala" da eta ez da sekula amaittuko.

ITZIAR EZENARRO
Langabetua



Neretako legegadixan oso gauza positibuak egin dira. Peatonalizazinaekin, erdialdiak bizittasuna irabazi dau. Baina parkiak konpondu eta ugarittu egin biharko lirakez, ume asko dago eta.

Eman zure iritzia sarean



GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
**GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK**
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

KM
Desing
Diseinua eta Formena
Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak
Errekalde 21 T. 943 75 00 06
20590 SORALUZE T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

MABE
ILEAPAINDEGIA
**ESTETIKA
SOLARIUM**
Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Domekan Irukurutzeta Eguna

Atsedean txaboletako eta Txurrumilo Elkarteko lagunek domeka honetan, maiatzak 8, ospatuko dute Irukurutzeta Eguna. Goizeko 11:00etatik aurrera salda eta txorizoa banatuko dute bertaratzen diren guztientzat

Jaiak prestatzeko bilera

Datozen egunotan Galtzagorri Jai Batzordea lagun talde ezberdinekin harremanetan jarriko da, datorren maiatzaren 13an, barixakuan, iluntzeko 21:00etarako antolatu duten juntadizoan parte hartzeko gonbidapena luzatu eta jaiak prestatzen hasteko. Jai batzordeko kideek jakinarazi dutenez aurtengo festak herritarren artean antolatzea da asmo nagusia eta horretarako, herriko gazteen partehartzea bultzatu nahi dute.

Jaietako kartel lehiaketa martxan

Santiago - Santa Ana jaiak iragartzeko kartelak izan behar dituen oinarriak aurkeztu berri ditu Udaleko Kultura sailak. Kartelak maiatzaren 27rako aurkeztu beharko dira udaletzeko bulegoetan. Oinarri guztiak, www.plaentxia.com atarian daude ikusgai.

Maiatzeko kultur ekitaldiak**GAUR, maiatzak 6****ANTZERKIA**

"Han izanik, hona naiz"

Joseba Sarrionandiaren ipuinak. 22:15ean, Zinean.

Ant: Sorluzeko Udala

MAIATZAK 13, barixakua**OSKORRI & PUB IBILTARIA**

Arratsaldeko 19:00etan, Zinean.

Ant: Sorluzeko Musika Eskola

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa herrian

Hamabi izango dira Gipuzkoako bertsolari txapelketako lehenengokanporaketanlehiatuko diren bertsolariak. Saiok goiz eta arratsalde burutuko dira, maiatzaren 15ean Sorluzeko Zinean. Goizeko saioan Asier Sasieta, Amaia Iturriotz, Agin Rezola, Jokin Labayen, Urko Egaña eta Iker Osak hartuko dute parte. 17:30ean arratsaldeko bertso saioari emango diote hasiera eta Iñigo Gorostarzu, Josu Oiartzabal "Xenpelar", Beñat Lizaso, Felix Zubia, Xabi Astigarraga eta Odei Lopez bertsolariak jardungo dute.

Sarrerak interneten

Bertso saioaz gozatu nahi duenak, www.bertsosarrerak.eu atarian erosi beharko ditu sarrerak, maiatzaren 9tik 13ra bitartean. Bestalde, bi saioen artean bazkaria izango da Allegro elkartearen eta bazkarirako tiketa aipatutako webgune berean eskuratu daiteke.

Herrian parte hartuko duten bertsolariak



Iturria: Gipuzkoako Bertsozale Elkarte

47 sorluzetar Debagoienako VI. Trikitixa Egunean

Aramaion ospatuko da bihar aurtengo Trikitixa Eguna eta herritik 47 ordezkari gerturatuko dira egitarauaz gozatzera. Ohikoa den kalejiran herriko 26 trikitilarik eta panderojolek hartuko dute parte Itziar Burunza irakaslearen gidaritzapean. Goizeko 10:45ean ongi

etorri ekitaldia egin eta hamarretakoa ere banatuko dute, 11:15ean burutuko den kalejiran indarberriturik irteteko. Aramaioko kaleak trikiti doinuaz jantziko dira 13:00ean ekitaldiari hasiera emateko. Gozategi taldeak dantzan jarriko ditu gero trikitizaleak.

Matxinsaltok gazte ugari bildu zituen

Gazte problematikari aurre egitea, iraultzari buruz eztabaidatzea eta gazteriarren kontzientzia kolektiboa berreskuratzea helburu zuen egunak Euskal Herriko milaka gazte batu zituen apirilaren 22an. Tailerrak, musika, kale animazioa, kontzertuak, eztabaidak eta 700 pertsonentzako herri bazkaria izan ziren.



P.com

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda

T. 943 75 30 11



Txoko kafetegia

Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

*Kalebarren-22, behe,
Sorluze, Tel. 943 75 17 89*



Joseba Garciak Udanako igoeran garaikurra lortu zuen

Apirilaren 30ean VI Udana-
ra Igoera jokatu zen. Gidari
plaentxiarrak 5GT turboarekin
konpetitu eta sailkapen ofizia-
lean 13. postua eskuratu zuen,
00:03:00.852 denbora eginda.
Garciaarena moduko autoek “Re-
nault Kopa” ere jokatzen dute
eta txapelketa horretan lehen
postua eta garaikurra eskuratu
zuen Garciak.

Istripuz tindatutako lasterketa

Igoeran hainbat istripu larri izan
ziren. Entrenamenduetan auto bat
bere bidetik irten eta sei lagun
zauritu zituen; bigarren “paellan”
gizon bat hainbat metrotatik behe-
ra erori zen. Sailkapena osatzeko
lehen lasterraldia bakarrik hartu
zuten kontuan.

Gaur bukatzen da Futbito Txapelketan izena emateko epea

Maria Gallastegik, Soraluze-
ko Kirol Teknikariak jakinara-
zi du 2011. urteko FutbitoTxapel-
ketan izena emateko epea gaur bu-
katuko dela. Horretarako kirolde-
gira jo behar da eta taldeko 30 euro
ordaindu. Txapelketako partidak
barixaku eta zapatuetan jokatuko

ko dira, kiroldegian bertan. Talde
guztiek izena emandakoan zehaz-
tuko dute egutegia baina aurreratu
duenez, egutegia finkatzen denean
ezin izango dira partida egunak al-
datu. Lehiaketa hau udaleko kirol
sailak antolatzen du.



Iazko finala jokatu zuten taldeak

Hasi dira emakumeen pala txapelketako kanporaketak



Aste honetan jokatu dituzte
Torturaren Aurkako Ema-
kumeen VI. Pala Txapelketako
lehenengo partidak. Guztira 32
partehartzaile lehiatuko dira
aurten lau taldetan banatuta.
Taldea bakoitza lau bikotez osa-
tuta egongo da. Lehenengo fa-

sea maiatzetik ekainera bitartean
luzatuko da eta ekaina erdialdean
ekingo diote talde bakoitzeko bi
bikote onenek bigarren fasea joka-
tzeari. Partidu guztiak San Andres
auzoko frontoian jokatuko dituzte.
Zorte on partehartzaile denei!



EMAITZAK

PELOTA

Titin III – Laskurain	22
Berasaluze VIII – Apraiz	14
Idoate	22
Laskurain	10
Titin III – Laskurain	11
Berasaluze VIII – Pascual	22
Atxotegi – Irureta	22
Eskoriatzako bikotea	6

Herri arteko txapelketa

Soraluze (kadeteak)	17
Elgoibar (kadeteak)	22
Soraluze (Jubenilak)	2
Elgoibar (Jubenilak)	22
Soraluze (Nagusiak)	22
Elgoibar (Nagusiak)	11

FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Gure Txokoa	5-4
Sora (Erreg. B) deskantsua	
Aretxabaleta K.E. – Sora (Kad.)	2-1
Sora (Jub.) – Ilintxa	3-1
Asoleus – Sora (Erreg.)	0-1
Sora (Erreg. B) – Urki	2-6
Urola B – Sora (Jub.)	6-1
Kadeteek atsedena	

AGENDA

PELOTA

Herri arteko pelota txapelketako II. fasea

Gaur, gabeko 21:00etatik
aurrera, Elgoibarko ikastolako
frontoian. Soraluze - Elgoibar.

Martitzena 10, 20:00etan

Sto. Domingo de la Calzadan

Titin III – Merino II
Gonzalez - Laskurain

FUTBOLA

Zapatua 7, 18:00etan Ezozin
Sora (Erreg.) – Anaitasuna F.T.

Zapatua 7, 16:00etan Garmendipen
Ikasberri K.E. – Sora (Erreg. B.)

Zapatua 7, 18:00etan Unben
Eibartarrak – Sora (Kad.)

Zapatua 7, 15:30ean Ezozin
Sora (Jub.) - Arizmendi



Astelehenero kirol albisteak

ZORION AGURRAK




Zorionak David eta Urko!
Muxu potolo handi asko etzekuen partez!



June Eguren
Bua! maiatzan 3an 8urte!!!
Ke pasada! Zorionak panpox!!!
Muxu asko danon partez!



Eneko Alvarez
Maiatzan 11n, 6 urte!
Zorionak etzekuen, Beleren eta konpañian partez!
Muxu asko eta ondo pasa!



Gorka Fernandez
Aurreku tabernako zerbitzariak, maiatzan 6xan urtiak betetzen ditte eta! Karropotes Kuadrillian partez!



Markel Oregi eta Ion Varela
Apirilan 13an eta 18xan 8 eta 22 urte!
Zorionak eta besarkada handi bat etzekuen partez!



Itziar Buruntza
Maiatzan 6xan!
Muxu eta besarkada bero bat, Karropotes kuadrillian partez!



Pedri Lete
Maiatzan 16xan 58 urte!
Ondo-ondo jarraitu eta muxu handi bat!



Rober Cruz
Maiatzan 16xan!
Zorionak eta besarkada asko, lagunen partez!



Garazi Prieto
Maiatzan 13an 3 urte!
Muxu potolo bat etzeko sorgintxo polittari.



Zorionak Ane eta Aiur!
Apirilian jaio eta 3 urte bete dozuelako!
Patxo bana familiakuen eta lehengusuen partez.



Egoitz Portu
Maiatzan 12xan! Zorionak Egoitz! 29 muxu maitte zaittugunon partez!



Zorionak Ander!
Apirilan 24an 16 urte betetzen ditzuzulako, muxu handi bat gurasuen partez!



Laia Martin Calleja
Apirilan 29xan urtebete!
Zorionak gurasuen partez, polittari! Muxu handi bat!




Rosario Rascon
Maiatzan 11an urtiak betetzen ditzuzulako... Zorionak!! Muxu handi asko etzekuen partez!



Zorionak Arkaitz eta Maddi!
Apirilan 20xan 38urte eta apirilan 22xan 5urte bete ditzuzelako muxu handi eta besarkada bero asko etzekuen partez!



Zorionak Juan!
Apirilan 13an urtiak betetzen ditzuzulako... etzeko danon partez muxu handi bat!



Jone Piñeiro Gantxegi
Apirilan 18xan 4 urte!
Zorionak eta muxu handi bat etzekuen partez!



Ander Sanchez eta Aner Molina
Apirilan 25ian eta maiatzan 10ian 4 urte!!
Zorionak eta muxu haundiiii asko!
Asko maitte zaittuegu!



Beñat eta Uxue
Apirilan 22xan eta maiatzan 7xan bi urte eta urtebete betetzen dozuelako, muxu handi askoooo etzekuen partez!!

LEHIAKETA

AURREKO ALEKO ERANTZUNA

► **Zein ageri da argazki honetan?**

► **Saria:** Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako lehen kanporaketarako bi pertsonentzat bina sarrera.



► **Irabazlea:** Eneko Beretxinaga

► **Aritz Alustiza,** Pelota taldekua da aurreko aleko argazkixan agertzen zana.



Oharra: Lehiaketako irabazlia aukeratzeko zozketia alia etara eta hurrengo barixaku eguerdixan egiten da

deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu **aldizkaria@pilpilean.com**

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Lucia Eguren

IGARATEN ARRANTZAN

Argazki honetan Egurendarrak ageri dira Igaraten izen berdineko txalupa gainian, atzian kañoi fabrikia daukela. Federico Egurenek berak eraikittako batela, ibaixan ibiltzen ziran hiru bateletako bat. Alabak akorduan dauke uda sasoi heldu ahala zela urtetzen ziran lore bila edo arrantzan, angilak, amuarrainak, loinak be harrapatu zeikiezen sasoi.

Ezkerretik eskumara: Teresita Eguren, Lucia Eguren, Federico Eguren eta Andres Eguren.

jaiotakoak

ANA FERNANDEZ RASCON



hildakoak

ROSARIO SIERRA BUSTO



ITZIAR BOLUNBURU ARRIETA

3. URTEURRENA

Orain dela hiru urte argi bat izali zen hemen lurrean, argi bat piztu zen han zeru ederrean, beti jarraituko duzu gure bihotzean. Ez agurrik, ez adiorik, gero arte baizik!.

Maitte zaittugunak!



ELGOIBAR ARREITURRE BHI 2011/2012 IKASTURTEA

ELGOIBARKO INSTITUTUA

Elgoibar Arreiturre BHI

Arregitorre 2

Tel.: 943 74 83 97

E-posta: 013431aa@hezkuntza.net

www.elgoibarbhi.net



BATXILERREKO ESKAINTZA

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA

Osasun zientziak

Zientzia eta teknika

HUMANITATEAK ETA GIZARTE ZIENTZIAK

Gizarte zientziak

Humanitateak

AUREMATRIKULAZIO DATAK: maiatzaren 2tik 11ra.



**IREKI
BIDEA
EZKERRARI**

Bozkatu



aralar

**BAKEARI
EUSKARARI
EUSKAL HERRIARI
POLITIKARI**



bildusoraluze



Elkarrekin herrigintzan!

